

2011 - 2014

Ikerketa Plana

2011ko apirilaren 14ko
Gobernu Kontseiluan onartua



Aurkibidea

1.	Aurrekariak eta baldintzatzaileak	5
1.1.	UPV/EHUren politika zientifikoa	5
1.2.	UPV/EHUren ikerketa-planaren baldintzatzaileak.	6
1.3.	Ikerketa eta euskara.	7
1.4.	Ikerketa Plan honen helburu nagusiak	7
1.5.	Ikerketa-maparen ondorioak	9
2.	Ikuspegia: UPV/EHUren ikerketaren jarrera hartzea (2014)	11
3.	Helburu estrategikoak	13
3.1.	Ikertzaile-doktoreen kopurua handitzea eta prestakuntzaren kalitatea hobetzea. 1. helburua	13
3.2.	UPV/EHUren ikerketa-kalitatea eta horrek nazioartean duen oihartzuna handitzea. 2. helburua	13
3.3.	Ezagutza eskualdatzearen kalitatea areagotzea. 3. helburua	14
4.	Baliabide materialak eta giza baliabideak	15
4.1.	Langileak.	15
4.1.1.	Helburua	15
4.1.2.	Jarduera nagusiak	16
4.2.	Azpiegiturak	16
4.2.1.	Helburua	16
4.2.2.	Jarduera nagusiak	16
4.3.	Arkitektura instituzionala	18
4.3.1.	Helburua	18
4.3.2.	Jarduera nagusiak	18

5. Ildo estrategikoak	19
5.1. Ikertzaile-doktoreen kopurua handitzeko eta ikerketa-prestakuntza- ren kalitatea hobetzeko ildo estrategikoak (1. helburua)	19
5.2. UPV/EHuko ikerketen kalitatea hobetzeko eta horrek nazioartean duen oihartzuna handitzeko ildo estrategikoak (2. helburua)	22
5.3. Jakintza eskualdatzearen kalitatea areagotzeko ildo estrategikoak (3. helburua)	26
Helburuaren adierazleak	29

1.1. UPV/EHUren politika zientifikoa

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU) unibertsitate ikertzailea da. Horregatik, gero eta unibertsitate hobe da gradu eta graduondoko irakaskuntza-eskaintzari dagokionez. UPV/EHUK 2011-2014 Ikerketa Plana aurkezten du dokumentu honetan. Horren helburua ikerketa-jarduera bultzatzea, ikertzaileen prestakuntza sustatzea eta ezagutza sortzea eta eskualdatzea da, zientziaren arlo guztietan. Unibertsitate ikertzaile baten alde egiteko apustua da errektore-taldearen ardatz estrategikoetako bat.

Halaber, Euskal Herriko Unibertsitateak oso ondo daki zer-nolako gizarte erantzukizuna duen. Ikuspuntu horretatik, eta bere estatutuetan ezartzen den moduan, zientzia-komunitateak onartutako legeek eta kode deontologikoek ezarritako mugak besterik ez dituen ikerketa-askatasuna aitortzen eta bermatzen du. Oinarri horiek zuzentzen dute UPV/EHUKo Ikerketako eta Irakaskuntzako Etika Batzordearen jarduera. Halaber, ikerketa eta hedapen zientifikoan euskararen erabilera bultzatzeko konpromisoa du, baita berdintasuneko eta garapenerako lankidetzako gaitan ikerketa sustatzekoa ere.

Aldaketa-garai honetan, gero eta globalizatuagoa eta lehiakorragoa den munduan, ezagutza eta berrikuntza oinarritutako eredurantz doan gizartean eta ekonomian, unibertsitatearen eginkizunak garrantzi berezia dauka.


Berrikuntza teknologikoa eta gizarte-berrikuntza estu-estu loturik daude edozein herrialdetako ekoizpen zientifikoarekin.

Testuinguru horretan, ikertzaileen trebakuntzarako eta doktore berrien prestakuntzarako prozesuak giltzarriak dira, eta ikerketa zientifikoaren eta teknologikoaren garapenarekin zerikusia dute, bakoitzak bere dinamika izan arren. Prestakuntza jasotzen duten ikertzaileen kalitatea tutore gisa aritzen diren ikertzaileen ara-

berakoa da, baita eskura dauden azpiegituren eta unibertsitate-erakundearen egonkortasunaren arabera ere. Graduaren ondoren, prestakuntza-prozesuak lau eta sei urte bitarteko iraupena izan ohi du batez beste, eta dedikazio eta ikasteko gaitasun aktiboa eskatzen ditu. Are gehiago, espezializazio osagarria egin behar du ikertzaileak, doktorego ondoko mailakoa, ikerketan eraginkorra izan baino lehen. Beste lanbide batzuetan bezala, prozesu horri jarraitzeko interesa, bokazioaz gain, txertatzen den gizartean ikertzailearen balorazio sozialaren eta ekonomikoaren mende dago, eta oso lotua dago tokian tokiko zientziaren eta teknologiaren arloko eskaerari.

1.2. UPV/EHUren ikerketa-planaren baldintzatzaileak

Ikerketa Planak UPV/EHUren 2009-2011 Plan Estrategikoan jasota dauden ikerketari buruzko lerro estrategikoak garatzen ditu. Horrez gainera, UPV/EHUren (Irakasleen Plan Gidaria, AZPko Erreferentzia-lerro Langile Zerrenda, Euskararen Plan Gidaria eta Gizonen eta Emakumeen arteko berdintasunerako I. Plana, besteak beste), Eusko Jaurlaritzaren, Estatuko Administrazio Orokorraren eta Europako Esparru Programaren beste erreferentzia-plan batzuk ere hartzen ditu kontuan, honako grafiko honetan ikus daitekeen moduan:



Beraz, UPV/EHU osoko politika batez hornitu nahi du Planak, ikerketa, ezagutzaren eskualdatzea eta balioespena, eta lan- nahiz enpresa-jardueraren arloetan, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna errespetatuz.

1.3. Ikerketa eta euskara

UPV/EHUko estatutueta 8. artikulua ezartzen duenez, «UPV/EHUk neurriak hartuko ditu euskararen erabilera normalizatzeko (...) ikerketa zientifikoan (...)» eta «arreta berezia eskainiko die euskal kulturari eta euskarari, esparru zientifikoan eta teknikoan nagusiki». Horrez gainera, 91. artikulua ezartzen duenez, «UPV/EHUk euskararen erabilera bultzatuko du ikerlanetan eta zabalkunde zientifiko, tekniko, humanistiko eta artistikoan. Era berean, beste hizkuntza batzuen erabilera ere bultzatuko du jardura horietan». Zentzu horretan, ikerketa arlo bakoitzeko erreferentziako zientzia-komunitateak baldintzatuko du, hein handian, lan egiteko hizkuntza.

Bestalde, UPV/EHUko Euskararen Plan Gidariak (2008-2012) honako hau esaten du: «erabat estandarizatuta ez dagoen euskara bezalako hizkuntza baten kasuan, euskaraz lan egin eta argitaratzen duten ikertzaileen ekarpenak ezinbestekoak dira, batez ere terminoen eta kontzeptuen kodetzeari dagokionez, arlo zientifikoetako corpus linguistikoa osatzen baita modu horretara». Halaber, honako hau ere esaten du: «euskaraz burutuko den ikerketa sustatzeaz gain, beharrezkoa dirudi esparru honetako hizkuntza-politika UPV/EHUko ikertzaileek lortutako emaitzak zabaltzera bideratzea».

Hortaz, ikerketa-plan honek oinarri horiek praktikan jartzeko bitartekoak planifikatzeko erronka hartzen du bere gain.

1.4. Ikerketa Plan honen helburu nagusiak

UPV/EHU erreferentzia-gunea da Euskal Herrian, bai ezagutza mota horren sorreran, bai ekonomiaren nahiz gizartearen eraldaketa-prozesuari ekiteko beharrezkoak diren gaitasunen sorreran. Estatuko unibertsitateen artean, bere erkidegoaren barruan indar gehien daukan ekoizpen zientifikoa egiten du UPV/EHUk, eta une egokian dago, bere **ikerketa-politika honako hauetara bideratzeko**:

- UPV/EHU Euskal Herriko eragile nagusi gisa sendotzea, ezagutza sortzeari dagokionez.

- Ezagutza hobeto gizarteratzea eta Euskampusen elkartze estrategikoaren alde egitea. Halaber, zientziaren eta teknologiararen komunikazioa gizarteratzea.
- UPV/EHUKo ekoizpen zientifikoa, teknologikoa eta artistikoa areagotzea, eta haren kalitatea hobetzea.
- Nazioarteko lankidetza eta elkarlana sendotzea, zientziaren, teknologiararen eta berrikuntzaren alorrean.
- I+G+b alorrerako kanpoko baliabideak hobeto eskuratzea.

UPV/EHUK proposatutako helburuak lortzeko aukera emango duten **berariazko xedeak** honako hauek dira:

- Unibertsitatea osatzen duten ikertzaile kopurua nabarmen handitzea eta horien kalitatea hobetzea. Langile horiek funtsezkoak dira, Euskal Herriko zientzia, teknologia eta berrikuntzaren arloetan.
- Gure unibertsitatean defendatutako doktore-tesien kopurua eta kalitatea areagotzea.
- Nazioartean oihartzuna duen ekoizpen zientifikoaren kantitatea eta kalitatea areagotzea.
- Ekoizpen zientifikoaren bikaintasunaren kultura jakintza arlo guztietara zabaltzea, erreferentziazko zientzia-komunitatetik abiatuta.
- Aitortutako ikerketa-jarduera duten irakasle eta ikertzaileen ehunekoa gehitzea.
- Ikerketa bultzatzea, nazioarteko garrantzia duten jakintza arloetan eta, bereziki, hobekuntza-aukera nabarmena duten jakintza arloetan.
- Egiaztatutako doktoreen trebakuntzan zailtasunak dituzten sailen etorkizun akademikoa bermatzea.
- Ikerketa-deialdi lehiakorretan eta ezagutza gizarteratzearen arloan baliabideak hobeto eskuratzea.

Oro har, erronka horiek guztiek garapen-, baliabide- eta finantzazio-politika bereziak eskatzen dituzte, eta antolaketa bat, harremanak eta esku-hartzeak ezagutzeko aukera emango duena, 2011-2014 aldian UPV/EHUK I+G+b arloan egingo duen ahaleginari ahal bezain beste etekina ateratzeko.

Kontuan hartu behar dugu bikaintasun zientifikoa eta teknologikoa lortu nahi izatea bateraezina dela unibertsitate publikoaren finantzazio eskasarekin. Ez dago bidezidorririk, ezta miraririk ere epe motzean.

1.5. Ikerketa-maparen ondorioak

UPV/EHUK kanpoko eragile independente batekin aztertu du bere ekoizpen zientifikoa, eta, horretarako, nazioartean aitortutako¹ helburuak eta parametro zorrotzak erabili ditu. Azterketa horretan, gainera, defendatutako tesien kopurua ere ikertu dugu, eta baita ikerketa-deialdi lehiakorretan izan dugun jokabidea eta ezagutza gizarteratzeko jarduerak ere. Horrek guztiak osatzen du Gobernu Kontseiluan 2010eko apirilaren 29an aurkeztu zen ikerketa-mapa.

Ikerketa-mapa horrek emandako informazioak jakintza arlo guztietan UPV/EHUK egindako jarduera guztiak xehetasunez ezagutzeko bide ematen du. Ikerketa horretatik ondorioztatzen diren **emaitza nagusiak** hauek dira:

- UPV/EHUKo ikertzailearen profila nabariki politeknikoa da (% 30 Fisika eta Kimika, % 35 Ingeniaritzak, % 28 espezialitate biomedikoak). Kontuan hartu behar dugu espezialitate biomedikoak Espainiako espezializazioaren % 45 irudikatzen dutela eta munduko ekoizpenaren ia % 40a.
- Ikertutako urteetan (2003-2009), etengabe hobetzen joan gara. Unibertsitate guztiak «lasterka» dabilta. Postu berean mantentzeak aurrera egiten jarraitzea eskatzen du. Berez, aldi horretan gure unibertsitateak estatuko ekoizpenaren % 2,7 egin du.
- 2003-2009 artean, UPV/EHUK 193 patente erregistratu zituen. Unibertsitateak 247 patente erregistratu ditu guztira, eta horietatik 19k lizentzia jaso dute.
- UPV/EHUK 23 enpresa sortu ditu, 2006-2010 artean.

Datuak aztertu ondoren, **honako ondorio hauek** atera daitezke:

- Ikerketaren egoera asko aldatzen da jakintza arloaren arabera. Arlo batzuetan maila handia dauka UPV/EHUK; are gehiago, nazioarteko batez bestekoaren gainetik dago. Beste batzuetan, ordea, hobekuntza-tarte handia dauka.
- UPV/EHUKen nazioarteko ekoizpen zientifikoa jakintza arlo guztietara zabaltzen da. Hau da, arlo guztietan nazioartean eredugarri diren ikertzaileak ditugu, baina horien kopurua nabarmen aldatzen da arlo batetik bestera.
- Enpresa, Arteak eta Giza Zientziak, Gizarte Zientziak eta Psikologia arloan hazi gara gehien. Hain zuzen, horiek dira Espainian eta munduan gehien hazi diren arloak ere. Artearen, Psikologiaren eta Gizarte Zientzien arloetan, estatuko batez bestekoaren gainetik hazi da.

¹ Felix DE MOYA ANEGÓN, *La investigación científica con visibilidad internacional de la Universidad del País Vasco (Scopus, 2003-2008)*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo, 2010.

- Irakasle askok ez dute nazioartean oihartzunik duen ekoizpen zientifikorik.
- Nazioarteko elkarlanean egindako argitalpenek eragin handiagoa dutela frogatu da.

Ikerketa-mapak sailen arteko alde handiak nabarmentzen ditu, ikerketa-jarduerari dagokionez. Horretarako, sailetako jarduera aztertu da, nazioarteko ikuspena duen ekoizpen zientifikoaren, defendatutako doktore-tesien, deialdi lehiakorretako ikerketa-proiektuen eta erakunde publiko eta pribatuekin egindako ikerketa-kontratuen arabera.

Ikuspegia: UPV/EHUren ikerketaren jarrera hartzea (2014)

2

UPV/EHUK honelako unibertsitatea izan nahi du:

- **Ikertzailea**; nazioartean oihartzuna duen ekoizpen zientifikoak unibertsitatea estatuko 10 unibertsitate onenen artean kokatuko nahi du 2014an; baita Europako lehenengo 200 unibertsitateen eta nazioarteko lehenengo 500en artean ere. Horrez gainera, UPV/EHUK mantendu egin behar du, eta ahal bada hobetu, munduan erreferente garen jakintza arloetan. SJR sailkapenak —Scimago taldea, IZGK— Leideneko Unibertsitateko sailkapenak eta ARWU rankingak helburu hori betetzeko bide emango dute.
- **Urtero 400 tesi baino gehiago defendatuko dituen**; esanguratsuak izango dira nazioarteko tesiak eta enpresarekin, bereziki, eta gizartearekin, oro har, elkarlanean landutakoak. Euskaraz gero eta doktore-tesi gehiago defendatuko dira.
- Erreferentziakzko komunitatearekin bat etorriko den eta **nazioartean aitortua izango den ezagutza sortuko duten** ikertzaileak eta irakasleak izango dituen.
- **Mailarik altueneko azpiegitura zientifikoez eta teknologikoez hornituta egongo dena.**
- Elkarlaneko ikerketa-lanari lagunduko dioten **gobernantza-ereduak eta antolakuntza-egiturak izango dituen**.
- **Jakintza arlo guztiak aintzat hartuko dituen**; batik bat, Gizarte, Ekonomia eta Zuzenbide Zientziak, Giza Zientziak eta Artea.
- Nazioartean oihartzun txikia duten, sortzen ari diren eta ikerketa-intentsitate apala duten jakintza arloak **nabarmen hobetuko dituen**.

- **Euskarari eta euskal kulturari buruzko ikerketa sustatuko duena;** euskarazko **hedapen zientifikoaren** alorrean ibilbide sendoa izango duena.
- **Genero-ikuspuntua sartzeko erreferentziazko ikerketa egingo duena,** gizon eta emakume ikertzaileek balio berdina dutela sustatuz.
- **Gure inguruko gizarte-beharrei erantzungo diena,** gizarte-garapen justua goa, iraunkorragoa eta bidezkoagoa izateko.

3.1. Ikertzaile-doktoreen kopurua handitzea eta prestakuntzaren kalitatea hobetzea. 1. helburua

Deskribapena: doktorearen balioa areagotzea, gizartean eta lan arloan. Oinarrizko ikerketa-ildoetan eta inguru sozio-ekonomikora bideratutako eta harekin lankidetzan egindako ikerketa-ildoetan doktore-tesi gehiago egin nahi dira; halaber, genero-ikuspuntua duen ezagutza eta euskararen normalizazio zientifikoa sustatuko dira.

Jakintza arlo guztiek izan behar dituzte politika egonkorrak, ikertzeko zaletasuna erakartzeko eta finantzazio egokia edukitzeko.

3.2. UPV/EHUren ikerketa-kalitatea eta horrek nazioartean duen oihartzuna handitzea. 2. helburua

Deskribapena: UPV/EHUko ikerketa arlo gehienetan ikerketa-kalitatearen funtsezko hobekuntza lortzea, estatuko eta nazioarteko testuinguru lehiakorretan oihartzuna izango duena. Ikerketa aurreratuaren arloetan, erreferentziako europar unibertsitateekin alderatu daitezkeen bikaintasun mailak eskuratzea. Ikertzaile, irakasle eta AZPko langileen nazioartekotzea hobetzea. Garapen zientifikoan eta ikertzaileen trebakuntzan eragina izango duten ikerketako antolakuntza-azpiegiturak eta -egiturak hobetzea.

UPV/EHUK ikerketa-jarduera sustatuko duten ingurune akademikoak birmoldatu eta sortu nahi ditu; horretarako, campusetako eremu bakoitzean berezitasuna eta espezializazioa sustatzera bideratutako instalazioak jarriko dira.

3.3. Ezagutza eskualdatzearen kalitatea areagotzea. 3. helburua

Deskribapena: UPV/EHUren ikerketa-taldeei laguntzeko egitura berritzaileagoa lortzea, sortutako ezagutzaren eskualdaketa eta balio erantsi handiagoa duten produktuen eta zerbitzuen garapena bultzatuko duena, berrikuntzaren kultura handiagoa duten ikertzaile gehiagorekin.

Ezagutza eta berrikuntzaren sorreran eta eskualdatzean oinarritutako ingurunean, UPV/EHUK eragile bultzatzailearen eginkizuna hartzen du, hainbat gizarte-eragileren topagunea eratzeke. Horren emaitza ez da izango soilik balioen batuketa bat, balio horien biderketa baizik, sortutako sinergieiei esker.

Horretarako, Ikerketa Planeko jarduera-multzoaren arkitektura eraginkor hau proposatu da:

1. HELBURUA: Ikertzaile-doktoreen kopurua handitzea eta prestakuntzaren kalitatea hobetzea		
Ildo estrategikoak	1. LE.	Zaletasun zientifikoa eta ikertzailea sustatzea
	2. LE.	Doktoreak gizarte-ingurunean baloratzea eta txertatzea
	3. LE.	Karrera zientifikoari laguntzea
2. HELBURUA: Ikerketa-kalitatea eta haren nazioarteko aitorpena areagotzea		
Ildo estrategikoak	4. LE.	Ikerketa-jarduera sustatzea
	5. LE.	Ikerketa-jarduera nazioartekotzea
	6. LE.	Ikerketaren kalitatea ebaluatzea
3. HELBURUA: Jakintza eskualdatzearen kalitatea areagotzea		
Ildo estrategikoak	7. LE.	Eskualdaketa bultzatzea
	8. LE.	Jabetza industrial eta intelektuala baloratzea
	9. LE.	Ekintzailatza babestea

Pertsonak

Azpiegiturak

Arkitektura instituzionala

Baliabide materialak eta giza baliabideak

4

Pertsonen, azpiegitura zientifikoaren eta arkitektura instituzionalen gainean egindako jarduerak zeharkako izaera dute, eta jarduera espezifikoak biltzen dituzte. Horiek eragin zuzena dute Ikerketa Plan honen helburuak lortzeko proposatutako jarduera-proposamenen garapenean. Horrez gainera, ikerketa-jardueraren ezaugarriak bereziak izaten dira askotan; hori dela-eta, lan-esparruak bizkor eguneratu behar dira, langileen eskaerei eta ikerketa-beharrei erantzuteko, ikerketari onura ekarriko dion eta ikertzaileak erakartzeko nahiz gaitzeko beharrezko erakargarritasuna emango dion lan-ingurunea sortze aldera.

Ondoren aipatzen diren jarduerak dute, hain zuzen, UPV/EHUK ikerkuntzaren arloan 2014. urtera arte izango duen aurrekontuaren zatirik handiena. UPV/EHUren gaitasun zientifiko-teknologikoak areagotzea (azpiegitura zientifikoak eta pertsonak) erronka handia izango da; izan ere, une honetan bereziki zaila da kanpoko baliabideak eskuratzea, arlo pribatuan batez ere —baina baita publikoan ere—. Etorkizuneko erronka bat da.

4.1. Langileak

4.1.1. Helburua

Ikerkuntza oro har eta unibertsitatean egindakoa bereziki horretarako prestatuta dauden langile-talde bidez egiten da, eta doktoreak ezinbestekoak izaten dira.

Doktoreen prestakuntza da behar bezalako ikerketa-jarduera egiteko lehenengo urratsa. Era berean, ezinbesteko baldintza da ibilbide akademikoan.

Ikertzaile adituak erakartzeko gaitasunak berezko harrobia sortzen du, eta gure ikertzaileen prestakuntza hobetzen du. Ikerketan lagunduko duten teknikariak ezinbestekoak dira, helburu hori lortzearen.

Langileen arloan, zeharkako jarduerak arloetako premia espezifikoetara egokitu beharko dute: eraginkorrak izan behar dugu, ikerkuntza-maparen arabera ikerketa-jarduera gutxi duten arloetan, eta arlo guztiak aitortuta egon daitezen ahalegindu behar dugu. Irakasleak eta ikertzaileak nazioartean oihartzuna duen ekoizpen zientifikoaren prozesuan sartzea da xedea.

4.1.2. Jarduera nagusiak

- Ikerketan laguntzeko langileen lanpostuak hornitzea, Ikerketa eta Prestakuntza Unitateetan (IPU), Berezko Ikerketa Zentro Trinkoetan (BIZT) eta SGIkerretan.
- Ikerketa-taldeei laguntzeko asmoz, ikerkuntzako administrazio eta zerbitzuetako langileen lanpostuak hornitzea, talde hasiberrientzako hornidura espezifikoekin.
- Ikertzaile iraunkorren lanpostuak sortzea.
- Ikerketa-talentua, Ikerbasque, irakasle bisitariak, *fellows* programa eta abar erakartzea.
- Ospe handiko irakasleak edo ikertzaileak sartzea, egiaztatutako ikertzaileen eta irakasleen trebakuntza sustatzeko beharra duten arloetan eta sailetan.
- Ikertzaile eta irakasleen prestakuntzari laguntzea, beren ikertzeko gaitasuna hobetu dezaten.
- Doktoratu aurreko laguntzak eta irakasle laguntzaileen politika bultzatzea, irakasleen Plan Zuzentzailearen, Berdintasunerako Planaren eta Euskararen Plan Gidariaren ildoei jarraituz.

4.2. Azpiegiturak

4.2.1. Helburua

Campusen Garapen Planean zehaztutako Unibertsitate Komunitate Integralaren eredian aurrera egiten jarraitzea, arlo guztietan azpiegitura zientifiko-teknologikoak garatzea aurreikusten baitu.

4.2.2. Jarduera nagusiak

Campusen garapena

UPV/EHUren Campusen Garapen Planak, 2005eko abenduan Gobernu Kontseiluak onartutakoak, oinarrizko kontzeptuak eta irizpideak finkatzen ditu, egungo

azpiegiturak berrindartzeko eta berriak sortzeko. Unibertsitate-komunitate integralak sortzearen aldeko apustua egiten du, UPV/EHUk presentzia duen arlo guztietan. Hau da, campusak bizitzeko, bizikidetzarako eta unibertsitate-jarduerako gune bihurtu nahi ditugu, horretarako beharrezkoak diren azpiegiturak eta zerbitzuak sortuta. Horien artean, ikerketa-jarduera bultzatzeko azpiegiturak nabarmentzen dira.

Honako jarduera hauek bultzatu nahi dira:

- Animaliategia.
- Ikerketan Laguntzeko Zerbitzu Orokorak, premia handieneko arloetan arreta berezia jarrita.
- Giza Zientzietako Ikerketa eta Ikasketa Aurreratuen Zentroa.
- Prestakuntzako eta Berrikuntzako Balio Anitzeko Zentroa.
- Joxe Mari Korta zentroa II.
- Polo Ekonomiko Juridikoaren garapena, Sarriko Ekonomia eta Zuzenbide Zientzien arloko ikerketak egiteko azpiegituren sorrera.
- Berezko ikerketa-zentro trinkoen ekipamenduen hornidura.

UPV/EHUren Zientzia Parkearen garapena

Zientzia Parkearen garapena azpiegiturak handitzeko eta berriak sortzeko planean kokatzen da. Horien bidez, ezagutza sortu nahi da, berrikuntza errazteko eta ezagutza hori euskal ekoizpen-sarera eramateko. Planteatutako parke-eredua bat dator euskal teknologia-parkeen estrategiarekin eta nazioarteko zientzia- eta teknologia-parkeen joerekin. Unibertsitatearen, Enpresaren, Zientziaren eta Gizartearen arteko elkargunea eratu nahi da. Jarduera horiek plataforma zientifiko-teknologikoen sorreran gauzatuko dira, eta arreta berezia jarriko da artean eta sorkuntzan, lehen mailako elementu berritzaileak diren neurrian. Azken finean, gune berriak sortu nahi ditugu, jakintzaren arlo guztietan ezagutza sortzen eta eskualdatzen errendimendu handia duten taldeak kokatzeko.

Honako jarduera hauek egitea proposatzen dugu:

- Egoitzako eraikina.
- Zientzia Plataforma I eraikina, Zientzia Esperimentalen eta Artearen Ikerketa Trinkorako.
- Zientzia Plataforma II eraikina, Gizarte Zientzien, Giza Zientzien eta Artearen Ikerketa Trinkorako.
- Animalien Bioteknologiako eta Zelulen Terapia Genetikoko Zentroa.

- Biofisikako Zentroaren eraikin berria.
- Zientzia Parkearen urbanizazioa.
- Ingurabidea.

4.3. Arkitektura instituzionala

4.3.1. Helburua

Ikerketa-jardueraren garapenak eta iraunkortasunak baliabide eta antolakuntza-esparru egokiak izango dituzten guneak behar ditu. Baliabideen antolakuntzak ikerketa-jarduera errazten, eta hobetzen du.

Ikerketa-jardueraren parte-hartzaile guztiengana iritsiko den antolakuntza egoki batek, jarduera bera errazteaz gainera, elkarlaneko ikerketa faboratu, eta irakasle gehiago ikerketa-lanetan sartzea eragiten du. Laburbilduz, jarduera horren bidez, ikerkuntzan erabilitako baliabideak optimizatu nahi dira, egitura berri antolatzaileak eta gobernantza-ereduak erabilita, baliabideak berak eta ikerketaren emaitzak hobetze aldera. Egitura horiek kalitateko ikerketa sustatu, kanpoko baliabideen lorpena bultzatu, eta ikerketara bideratutako baliabideen kudeaketaren eraginkortasuna hobetu behar dute.

4.3.2. Jarduera nagusiak

- Ikerketa eta Prestakuntza Unitateak (IPU) izeneko agregazio estrategikoak sortzea UPV/EHUn, ikerketaren kantitatea eta kalitatea areagotzeko egiturak sortze aldera, jakintza arlo guztietan bikaintasunezko ikertzaileen masa kritikoa izanik. Modu horretan, sinergiak, diziplina aniztasuna eta elkarlana sustatuko dira, berritzeko, baliabideak eskuratzeko eta eskualdatzea egiteko; horrela, emaitza hobeak lortuko dira, banakotasunen batuketarekin baino.
- Berezko Ikerketa Zentro Trinkoak (BIZT) sortzea, UPV/EHUn eragin gehien duen ikerketa gizarteratzeko. Jarduera horrek Ikerketa eta Prestakuntza Unitateak hasitakoa osatuko dute, eta horrek lehendik baziren I+G+b egiturak sendotzeko bide emango du.
- Euskampus elkartzea sustatzea; izan ere, horrek kanpoko erakundeekin lankidetzat ahalbidetzen du, baliabideei eta gaitasunei etekin handiagoa ateratzeari begira.

5.1. Ikertzaile-doktoreen kopurua handitzeko eta ikerketa-prestakuntzaren kalitatea hobetzeko ildo estrategikoak (1. helburua)

Gaur egungo gizartean, doktoreak ezinbestekoak dira ekoizpen-sarean eta gizartean. Unibertsitateak doktoreak prestatu behar ditu, eta ahaleginak egin behar ditu prestakuntza hori ezagutzan eta berrikuntzan aurrera doan gizartera egokitzeko, bertan txertatuz gizon-emakumeen ezagutza eta haien eskubide, erantzukizun eta aukeren berdintasuna. Doktoregoko ikasketek, karrera akademiko bat egiteko prestatzeaz gain, enpresa, erakunde eta instituzio berritzaileetan sartzeko bide ematen dute.

Helburu hori honako ildo estrategiko hauen bidez garatzen da:

1.LE. Bokazio zientifikoak eta ikertzaileak sustatzea

Ildo estrategiko hori unibertsitate aurreko eta unibertsitateko ikasleen bokazio zientifikoa handitzera bideraturik dago, jakintza arloen osotasunean. Halaber, beharrezkoa da zientziaren eta teknologiaren komunikazioa eta hedapena jardura sistematikoak izatea; hartara, gizarteari hurbiltzea eta bere balorazio egokia izatea lortuko dugu.

Ildo estrategiko hori zabaltzeko, jardura hauek aurreikusten dira, besteak beste:

Ikasketa ez-unibertsitarioko prestakuntzatik abiatuta, ikertzeko interesa sustatuko duten programak diseinatzea eta ezartzea

Ikasketa ez-unibertsitarioak egiten ari diren ikasleen artean ezagutza humanistikoa, zientifikoa eta teknologikoa sustatzea da xedea, ikasle horien jardura praktikoetan unibertsitateko zentroen parte-hartzea bultzatuz.

Zientzia, Berrikuntza eta Sormena hedatzeko hainbat jarduera antolatzea

Unibertsitateko ikasle ez direnei ikerketa-taldean jardueren berri emateak, zehazki, eta zientziaren eta metodo zientifikoaren berri emateak, oro har, gazteen zaletasun zientifikoa sustatzen du, hau da, harrobia sortzen du hezkuntzaren arlo guztietan.

Ikerketa-taldeetan parte hartzeko lankidetzak, ikerketako hastapen-ikastaroak edo metodo zientifikoari buruzko lantegiak graduko ikasleen zaletasun zientifikoa sustatzeko

Jarduera horiei esker, ikasleek errazago ezagutuko dituzte unibertsitateko irakasleak ikerketaren arloan egiten ari diren jarduerak, zeinetan parte hartzeko aukera izango duten.

UPV/EHUn ikerketa-jardueraren hedapena

Jarduera horiek UPV/EHUK gizartearentzako egindako lana ezagutarazten dute, eta, bidez batez, jarduerak ezagutzeko eta ikasle gazteen interesa pizteko aukera ematen dute. Era berean, Unibertsitateak gizartearekin oro har eta ekoizpen-sektorearekin bereziki duen elkarreragina errazten du.

Euskarazko hedapen zientifikoa bultzatuko da bereziki, unibertsitate aurreko ikasleentzat, profesionalentzat eta publiko espezializatuarentzat.

2.LE. Doktoreak gizarte-ingurunean sartzea eta baloratzea

Datozen urteetan, Euskal Herriak zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren arloak bultzatzeko egin beharreko apustuak gizarteak doktorearen irudia modu egokian baloratzea lortuz gero bakarrik egingo du aurrera; horrek ikertzaileen masa kritiko egokia sortzea ahalbidetuko du. Unibertsitatean prestaturiko doktoreek gidatuko dute gizartearen aurrerapena bai ezagutzan bai berrikuntzan.

Euskal Herriko Unibertsitateak ildo estrategiko hori hedatzeko aurreikusten dituen jarduerak hauek dira, bestek beste:

Doktore-tesien emaitzak hedatzeko jardunaldiak

Lantegiak eta mintegiak sustatu nahi dira, prestatzen ari diren ikertzaileak beren lehenengo lanetan orientatzeko eta babesteko, oihartzun gutxiko ikerketa-arloetan batik bat. Horrela, emaitzak nazioarteko foroetan (indexatutako artikuluak) hedatzea sustatu, izaera ekintzailea bultzatu (patenteak eta spin-offak sortzea), eta hainbat arloren arteko harremanaren alde egin nahi da; horrez gainera, diziplina askotako ikerketa-proiektuak egiteko erraztasunak emango dituzten taldeen artean trakzioak bilatuko dira.

UPV/EHUko ikertzaileei enpresetan eta beste erakunde batzuetan egonaldiak egiteko babesa ematea

Jarduera honek bi alderdi ditu: batetik, prestatzen ari diren ikertzaileek eta iker-tzaile doktoreek enpresetan edo beste erakunde batzuetan egonaldiak egitea, eta, bestetik, enpresa eta erakunde horietako profesionalei laguntzea, doktore-gradua lor dezaten.

Lehenengo jardueraren helburua ikertzaile akademikoei gizarte- eta ekonomia-sarearen errealitatea ezagutaraztea da. Ezagutza horrek gizartearengana, oro har, eta enpresetara eta beste erakunde batzuetara, zehazki, hurbiltzeko ikerketa-ildo egokiak hautatzeko bide emango du.

Bigarren jardueraren xedea, berriz, erakundeetako I+G+b sailtako langileak ikerketaren alorrean prestatzea da. Jarduera horrek unibertsitatearekin duten komunikazioa hobetuko du.

Doktore-tesia arduraldi partzialean egiteko erraztasunak ematea, enpresa edo erakundeekin lankidetzan

Herri-administrazio, enpresa eta gizarte-erakundeetako langileek doktore-tesia egitea erraztu nahi du UPV/EHUk. Hori dela-eta, tesia arduraldi partzialean egin ahal izatea bultzatuko du. Jarduera hori erakundeekin egindako hitzarmenen bidez eta Unibertsitate-gizartea proiektuen bidez indartuko da.

3. LE. Ikertzaileen karrera zientifikoa sustatzea

Ikerketaren jarduera eta kalitatea ikertzaileen prestakuntzarekin estu-estu lotuta dago, eta baita ikerketa-taldeak osatzeko pertsona-taldeak sortzearekin eta finka-tzearekin ere. Langile horien trebakuntza prozesu luzea denez eta ikerketa-ibilbidea ziurgabetasunez beterik dagoenez, bokazio zientifiko gutxi dago.

Alor horretan aurreikusitako zenbait jarduerak ikerketara bideratutako baliabi-deak handitzea eta indartzea dute helburu, ikerketa-karreraren alde eginez etapa guztietan:

Doktoreen prestakuntza-programak eta espezializazioak

Jarduera horien helburua prestakuntza, ikerketa-gaitasuna eta etorkizuneko espezializazioa bermatzea da, UPV/EHUko ikerketa-taldean barnean.

Lehentasunezko helburuetako bat doktoreen prestakuntza da, ikertzaile gutxi dauden alorretan, batez ere; izan ere, horrek belaunaldien arteko txandaketa egitea eta karrera akademikora sartzea eragozten du.

Langile iraunkor ez-doktoreentzako prestakuntza-programa espezifikoa garatzea

Interesatuta dauden ikastegietako eta inplikaturako sailtako zuzendaritzekin doktoreen prestakuntza sustatzeko eta errazteko jardura egokiak aztertuko dira.

Zientziarako Euskal Fundazioarekin lankidetzan aritzea

UPV/EHUko ikertzaileak erakartzeko politikaren arloan, UPV/EHUren eta Ikerbasquen (Zientziarako Euskal Fundazioa) arteko lankidetzak estua lagungarria da etorkizuneko arloetan ikerketa-gaitasun berriak sortzeko, ikertzaileen ekoizpen zientifikoa, teknologikoa eta humanistikoa hobetzeko eta UPV/EHUko zientzia nazioartean zabaltzeko, munduko ikerketa-zentro onenekin dituen harremanen bidez.

5.2. UPV/EHUko ikerketen kalitatea hobetzeko eta horrek nazioartean duen oihartzuna handitzeko ildo estrategikoak (2. helburua)

Helburu hori 4. atalean adierazitako zeharkako jardueretan bultzatutako ildo estrategikoen bidez garatzen da.

4. LE. Ikerketa-jardura sustatzea

Ikerketa-jardura sustatzeko, ikertzeko egitura hobetu, giza baliabide eta baliabide ekonomiko egonkorak handitu, eta elkarrekin adostutako xedek lortzeko ikerketa-taldeak konpromisoa lortu beharko dugu.

Ildo estrategiko hori zabaltzeko, jardura hauek aurreikusten dira:

Prestakuntza eta Ikerketa Unitateak garatzea

UPV/EHUko ikerketa-taldeak jasotzen dituzte Ikerketako Plan Nazionalen eta Euskal Autonomia Erkidegoko Planetan ikertzeko emandako laguntza gehienak. Hala ere, talde horiek egiteko garrantzitsua dute Europako hainbat Esparru Programatan. Funtsezko eginkizuna eta zeregin erabakigarria dutela kontuan hartuta, UPV/EHUk oinarritzat hartu behar ditu ikerketa-bolumen nahikoa garatzeko; hartara, bide eman-gar du erakundearen barnean ezagutza gehiago sortzeko eta arlo guztietan ikertzaile bikainen taldeak osatzeko.

Proposatutako esparruaren helburua atxikitako adierazleak hobetzea da, indarrean dauden taldeetatik abiatuta. Horrez gain, gaur egun talde horietan parte hartzen ez duten ikertzaileak sartu nahi dira.

Prestakuntza eta Ikerketa Unitateak sortzea proposatu da; eta horretarako, deialdi ireki eta espezifikoa egingo da. Horrela, unibertsitateak ikerketako eta ikertzaileen prestakuntzako egitura malgua, egonkorra eta finkatua izango du, Prestakuntza eta Ikerketa Unitatearen eta Ikerketako Errektoreordetzaren artean onartutako konpromisoen betetze-mailaren aldizkako balorazioen bidez.

Berariazko Ikerketa Zentro Trinkoak garatzea

Berariazko Ikerketa Zentro Trinkoak (BIZT) gure unibertsitateak sortutako ikerketa-zentro oinarritzakoak eta translazionalak dira. Bakoitza bere arloan, nazioarteko erreferentzia izateko eratu ziren, beren jardueren egokitasuna, garrantzia eta bikaintasuna kontuan hartuta.

Eredu alternatibo batean oinarritutako Euskal unibertsitate-sistemaren zentro bakarrak dira; hain zuzen, ikertzaile iraunkorren eta atxikien jarduera bateratzen dute, eta hainbat unibertsitate-egiturari lotuta daude: Prestakuntza eta Ikerketa Unitateak, aitortutako ikerketa-taldeak, unibertsitate-erakundeak eta Ikerkuntzarako Zerbitzu Orokorrak. Zentroek UPV/EHUren helburu estrategikoekin konpromisoan oinarritutako baliabideak edukiko dituzte.

Ikerketa-taldeak babestea

UPV/EHUko ikerketa-taldeein laguntzen jarraitzeaz gainera, ikerketa-talde hasiberriei laguntzeko ekimen hau sendotu nahi da. Diziiplina askotako ikerketa-taldeak sortzea indartu nahi da, talde txikiak dituzten ikerketa ildoetan, batik bat.

Ikerketa-intentsitate txikiko arloetan jarduerak indartzea

Ikerketa-mapan intentsitate txikikotzat jotzen diren arloak berariazko deialdien bidez sustatuko dira: ikerketa-proiektuak, UPV/EHUko ikertzaileak erreferentzia-zentroetara mugitzea, etab.

Horrez gainera, beste jarduera espezifiko batzuk egiteko asmoa dugu, hala nola: prestakuntza zientifikoa; Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin hitzarmenak ezartzea, EAEko hezkuntza-zentroen sarearekin lankidetzan aritzeko, edo ikerketako emaitzak argitaratzen laguntzea, erreferentziako komunitatean aitortutako nazioarteko ospea duten aldizkarietan edo argitaletxeetan.

Ikastegietako ikerketa-kultura eta -jarduera sustatzeko programak

Goi Mailako Irakaskuntzaren Europako Esparruak eta Ikerketako Europako Esparruak prestakuntza eta ikerketa uztartzen dituzte, ikasleek gaitasunak eta trebetasunak eskura ditzaten. Aldaketa horretara egokitzeak ikastegiko zuzendaritzarekin eta inplikaturako sailekin adostutako programa espezifikoak diseinatzea faboratzen du, ikerketa modu sistematikoan txertatzeko.

e-liburutegia sustatzea

Unibertsitateko liburutegia ikerketa-lanerako funtsezko zerbitzua izateaz gainera, gehien erabilitako zerbitzua ere bada. E-liburutegiaren bidez, zerbitzu hori indartzeak sarea erabilia informazioa lortzea erraztuko du, aldizkariak modu elektronikoan kontsultatzeko aukera handiagoa eskainiz.

Aldizkari zientifikoaren argitalpena

UPV/EHUko aldizkari zientifikoak mantentzen eta hobetzen lagundu nahi da, kalitate zientifikoa duten artikuluak argitaratzen direla eta ikerketaren eta ezagutzaren emaitzak komunitate zientifikoari eta gizarteari eskualdatzen zaizkiela bermatzeko.

UPV/EHUK jarduera nabarmena egiten du liburuak eta aldizkari zientifikoak argitaratzean. Argitalpen Zerbitzuaren helburua argitalpen horiek kalitatedunak direla zaintzea da. Horretarako, formatu elektronikoan dauden eta FECYT-en edo Latindex-en antzeko sistemetan aitortutako kalitate-irizpideetara egokitzen diren aldizkari zientifikoak sustatzeko programak bultzatuko dira; era berean, argitalpen horiek erreferentziako komunitate zientifikoaren datu-baseetan aitortzea bultzatuko da.

UPV/EHUK jakintza bi hizkuntza ofizialetan sortzeko erantzukizuna dauka, eta euskaraz ikertzen duen unibertsitate bakarra denez, euskarazko argitalpen zientifikoaren eta horien hedapenaren kalitatea sustatu behar ditu. Euskararen normalizazio-prozesua aurrera doa, baina, halere, euskarazko ekoizpen zientifikoa babesteko neurriak nahitaezkoak dira oraindik.

5. LE. Ikerketaren nazioartekotzea

UPV/EHUren nazioarteko garapena bere kalitate akademikoaren eta zientifikoaren funtsezko faktorea da. Erakunde bat ezagutzaren eta berrikuntzaren mugan mantentzeko, ezagutzan aurreratuagoak dauden sektoreekin harremanak eta aliantzak indartu eta mantendu behar ditu.

Illo estrategiko hori zabaltzeko, jarduera hauek aurreikusten dira, besteak beste:

Nazioarteko partzuergo eta sare egonkorren prestakuntzari, dinamizazioari eta mantentzeari laguntzea

Jarduera ikertzaileei bideratuta dago, eta beren jardueraren nazioarteko alderdia azpimarratzea du xede, nazioarteko partzuergo eta sareen bidez. Horrez gainera, herrialde guztietako ospe handiko ikertzaileak sar daitezzen erraztuko da, nazioartekotzea hobetzeko.

Nazioarteko proiektuetan parte-hartzea areagotzea

UPV/EHuko ikertzaileek parte hartzen duten nazioarteko proiektuen kopurua handitzea da helburua, Europako Esparru Programaren deialdietan, batik bat.

Horretarako, nazioarteko proiektuen bulegoa baliabide gehiagoz hornituko da, teknikari laguntzaileak gehituko dira, eta horiek egin beharreko zerbitzuetarako beharrezkoa den prestakuntza intentsiboa areagotuko da, hala nola: a) nazioarteko proiektuetan parte hartzeko aholkularitza; b) emandako proiektuen kontratu-negoiazioa; c) proiektuen administrazio- eta finantzaketa-kudeaketa; d) 7PM ekimenean parte hartu nahi duten ikertzaileentzako prestakuntza; e) mugikortasunerako eta Europako proiektuetarako proposamenak prestatzeko edo horietan parte hartzeko laguntzen berariazko deialdia, eta f) 7PM ekimenean parte hartzen laguntzeko materiala ematea eta zabaltzea.

6. LE. Ikerketen kalitatea ebaluatzea

Jarduera zientifikoa ebaluatzea funtsezko elementua da erakundeetan ezarritako ikerketa-, teknologia- edo garapen-programa guztietarako. Ekoizpen edo jarduera zientifikoa eta teknologikoa modu egokian erregistratzeko informazio-sistemak izateak unibertsitateko ikerketa-politikak zuzen ebaluatzeko aukera emango du; horrek, berriz, ekoizpen zientifikoaren hazkundea eta kalitatea bizkortuko duen eta munduan daukan oihartzuna eta kokalekua hobetuko duen uneko ikerketa-politikak edo -programak berriz diseinatzeko bide emango du.

Illo estrategiko hori zabaltzeko, jarduera hauek aurreikusten dira:

Ekoizpen Zientifikoaren Behatokia abian jartzea

Behatoki hori UPV/EHuren eta Ikerbasquen arteko lankidetzat-hitzarmenaren ondorioa da, eta informazio zientziometrikoa eta bibliometrikoa partekatzeko aukera ematen du, maila atxikian.

Elkarrekin egindako ikerketa-lan horrek gure ekoizpenaren indarguneen eta ahulguneen barne ezagutza areagotzen du, eta emaitza horiek gizarte osoari zuzen-dutako txostenen bidez argitaratzen dira.

Ikerketa-jardueraren Ebaluazio eta Jarraipen Unitatea sortzea

Unitate horrek babesa emango die gainerako jarduerari, eta gure unibertsitateko ekimenen eta programen emaitzak hainbat adierazleren arabera (ikerketa-jardueraren ekoizpena eta kalitatea, besteak beste) ebaluatzeko aukera eskainiko du. IPUek eta BIZTk hartutako konpromisoak betetzen diren ala ez modu zorrotzean baloratu behar da, egiaztatu daitezkeen irizpideak eta datuak erabilita.

Ikerketa-jardueraren ebaluazio-unitate horren garapenak bide emango du ikerketa-programa, erakunde, unibertsitate, campus edo zentro baten tokiko, estatuko edo nazioarteko azterketa egiteko eta haren eragina neurtzeko. Azterketa horrek egindako jarduera objektiboki ebaluatzeko aukera emango du, eta baita ikerketa, berrikuntza eta sormena sustatzeko egindako jardueren arrakasta maila ere.

Halaber, unitate honek euskarazko ekoizpen zientifikoa ebaluatuko du, euskara indartzeko programak hobetzeko, UPV/EHUk berau finantzatzen duen gizartearekiko daukan konpromisoa areagotzeko eta unibertsitate erabat elebidunerantz aurrera egiteko.

Ikerketan laguntzeko zerbitzuen kalitateko egiaztapena sustatzea

Unibertsitate-komunitateak kontrastatutako kalitateko zerbitzuak izan behar ditu. Jarduera hori ikerketari laguntzeko zerbitzuei zuzentzen zaie; SGikerrei bereziki. Ikertzaileak zerbitzuetan errazago sartzeko jarduera-protokoloak eskainiko ditu, eta horien kalitatea bermatuko du.

5.3. Jakintza eskualdatzearen kalitatea areagotzeko ildo estrategikoak (3. helburua)

Helburu hori 4. atalean adierazitako zeharkako jardueretan bultzatutako ildo estrategikoen bidez garatuko da.

7. LE. Eskualdaketa bultzatzea

Ildo estrategiko horren helburua berrikuntza-sistemetako eragileen arteko elkarre-
ragina hobetzea da, eta, horretarako, hainbat ekintza egingo dira, hala nola: ezagutza eskualdatzeko erraztasunak sortuko eta eskainiko dituzten ekosistemak garatzea eta ezartzea, eta berrikuntzan, sormenean, zientzian eta teknologian oinarritutako enpresak sortzeko jarduerak. Ikerketa-taldeak eta erakunde publiko nahiz pribatuak arteko lankidetzak bultzatuko da.

UPV/EHU ildo estrategiko horretan apustua egiteko prest dago. Horren bidez, gure unibertsitatean sortutako emaitzen eta ezagutzaren eskualdaketa jautzi kualitatibo eta kuantitatibo garrantzitsua egin nahi da. Jarduera-ildo hori Nazioarteko Bikaintasunaren Campus (Euskampus) bihurtzeko proiektuak koordinatzen du.

Ildo estrategiko hori zabaltzeko, jarduera hauek aurreikusten dira, besteak beste:

Berrikuntzaren kudeaketa: sektoreen arteko topaketak

Beste erakunde batzuetako I+G+b alorreko ikertzaileen eta profesionalen sektore-topaketak egitea bultzatuko da, zientziaren arlo zehatz batean.

Gizarte-laboretegiak eta ideien laboretegiak sortzea. Gizarteko erronka berriei buruz hausnartzeko eta ideiak sortzeko guneak

Jarduera honek honako hau dakar, besteak beste: ikerketa-zentroetan behar bezalako espazioak jartzea, gizarte-esperimentuak errazteari begira, eta diziplina askotako inkestak eta foroak sustatzea, gertakari sozial, ekonomiko eta juridiko garrantzitsuen azterketari lotutako ikerketa-ildoen alde egiteko.

Ikertzaileen jarduerak sustatzea

Jarduera hau instituzio, enpresa edo erakundeetako ikertzaileak sustatzera bideratuta dago. Horretarako, web atari bat diseinatuko da, emaitzak gizarteratzen laguntzeko. Jakintza arlo guztietako ikertzaileek egindako jardueren erakusleirioa izango da, horiek hedatzeko helburua izango duena.

UPV/EHUK berrikuntza-sistemaren beste eragile batzuekin batera eginiko proiektuak

UPV/EHUK deialdi bat egitea proposatzen du erakundeekin edo enpresekin koordinatuta egindako proiektuak finantzatzeko. Horrela, unibertsitateak beste erakunde batzuekin duen harremana indartu nahi da.

Unibertsitate-gizartea doktorego aurreko baterako laguntzen deialdia

UPV/EHUK gizarte- edo ekonomia-eragileekin baterako deialdiak egitea proposatzen du, gizartearekin lankidetzan doktore-tesiak egiteko. Ehun doktore beste hainbeste enpresa, administrazio edo gizarte-eragilerentzat.

8. LE. Jabetza industrial eta intelektuala baloratzea

Unibertsitateak, ezagutzaren eskualdatzea sustatzeko lanean, merkatuko sektoreak identifikatu behar ditu, eta ebaluatu behar du eskualdatutako ezagutza hori, hau da, berrikuntza bihur daitezkeen unibertsitate-ikerketaren emaitzen bidez lortu dena.

Lerro estrategiko hori zabaltzeko, jarduera hauek aurreikusten dira:

Patenteen Bulegoa indartzea

Jarduera hori ikerketa bultzatzeko egiturak hobetzera zuzenduta dago. Bulegoko kudeatzaileei I+G+b arloko jardueren eta ikerketako emaitzak babesteko prozeduren gaineko prestakuntza eman behar zaie, patenteak eta markak babestuz.

Ikerketako emaitzen babesa bultzatzea. Patente-eskaerak babestea

Jarduera honen bidez, ikertzaileei argibideak eman nahi zaizkie, ikerketako emaitzen eta beren balioespenaren kudeaketari eta jabetzaren erregistroari buruz. Patentearen finantzaketa edo kofinantzaketa egingo du, patentearen bideragarritasunaren azterketaren arabera. Honako hau barne hartzen du: a) ezagutza babestea (patenteak, konfidentzialtasun-hitzarmenak eta materiala eskualdatzeko akordioak), eta b) lizentziak (jabetza eskualdatzeko estrategia indartzea, nazioan eta nazioartean).

9. LE. Ekintzailatza babestea

Ilido estrategiko honek teknologia-oinarria duten enpresa sortzaileak eta berri-tzaileak eratzeko laguntza-sistema osatzea du xede. Jarduera horien bidez, besteak beste, laguntza-eragileen sareak eta mintegiak sortu nahi dira, eta kultura ekintzailea sustatu nahi da ikasleen, ikasle ohien, irakasleen eta ikertzaileen artean; hartara, unibertsitatean sortutako ikerketa-emaitzak ustiatu ahal izango ditugu.

Ekintzailatza-programak garatzea. Mintegiak sustatzea eta enpresak sortzea

Ekintzailatza-programek (Inizia, EHU-Abiatu eta Entreprenari) enpresa ekimen berriak hautemateko eta balioesteko ekimenak jasotzen dituzte, kultura ekintzailea sustatzen dute, eta enpresa berriak sortzen laguntzen dute.

Enpresa-mintegiak ere lagungarriak dira enpresa sortzeko; hortaz, bi jarduerak elkarrekin lotuta daude.

Helburuaren adierazleak

1. Helburuaren adierazleak	Hasierako datua	2011-2014rako helburuak
Prestakuntza bidean dauden ikertzaileak.	638	730
Irakurritako tesi kopurua/Europar tesi kopurua/Euskarazko tesi kopurua.	321/49/24 (2009/10 ikasturtea)	400/80/40 (2013/14 ikasturtea)
Enpresen lankidetzarekin/finantziazioarekin egindako tesiak edo transferentzia zientifiko eta teknologiko handia dutenak.	0	40
Doktorego osteko UPV/EHUren laguntza programarekin egindako kontratu kopurua.	30	40
Ikerketa lanean hasteko bekak, zientzia eta ikerketarako bokazioa bultzatzeko helburua dutenak.	0	40

2. Helburuaren adierazleak	Hasierako datua	2011-2014rako heburuak
Ikerketa jardueretan dabiltzan irakasle eta ikertzaileen ehunekoa.	%72	%85
Ikertzaile kopurua (LOB).	2386	2550
ISI aldizkarietan argitaratutako artikulua (JCR). Aitortutako datu baseetan (INRECJ, INRECS, DICE-CINDOC, SCOPUS) indexatuta dauden aldizkarietan argitaratutako artikulua.	1.586 Zehazteke	2.000 %20ko hazkundea
Ikerketari laguntzeko eskualde eta nazio mailako deialdietatik lortutako itzulkinak	20,5 M€	23,1M€
Nazioarteko zenbat sare eta partzuergotan parte hartzen den (horietakoren baten buru izanez gero, adierazi).	39/4	75/10
Koordinatutako nazioarteko proiektuen urteko batez bestekoa.	7	10
Nazioarteko proiektuetako parte hartzea.	65	90
UPV/EHUko pertsonalaren mugikortasun jardueren kopurua (4 astetik gorako egonaldiak).	60	75
Programa markoen deialdietatik edo bestelako nazioarteko deialdietatik lortutako itzulkinak (eurotan).	8,3M€	12M€
Pilatutako aipamen kopurua (1980-urtea) / UPV/EHUren h indizea.	(1980-6/2010) 172.510 / h(2010eko uztaila) 108	(1980-6/2015) 235.000 / h(2015eko uztaila) 125
Ikerketari laguntzeko zerbitzu orokorretako (SGIker) atalen kopurua.	2	7
Barruko erabiltzaileak (IN)/kanpoko erabiltzaileak (SGIkerrez bestelako IFZ dutenak) (IN eta entitate desberdinak zenbatzen dira, errepikapenik gabe).	241/162	300/225
Indarreko seiurteko kopurua (azken sei urteetan lortutako seiurtekoa). Indarreko seiurteko kopuruaren/seiurtekoak eska ditzaketen irakasle eta ikertzaile kopuruaren ratioa.	Zehazteke	%10eko hazkundea

3. Helburuaren adierazleak	Hasierako datua	2011-2014rako heburuak
Kontratupeko diru sarrerak (eurotan).	12M€	14M€
Patente kopurua.	49	60
Teknologiaren lizentzia kontratuen urteko kopurua.	4	5
Sortutako spin-off enpresak.	6	7
SGIkerrek kanpoan emandako zerbitzuek sortutako diru sarrerak.	0,45M€	0,60M€